

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko maiatzaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: "Ekintzaileentzako txeketa" udal programaren 2016ko deialdia

BDNS (identifikatzailea)

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren web-orrian <http://www.ayuntamientovitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehen. Onuradunak

Ekonomia-jarduera udalerriko enpresa zentroetan edo coworking gunen batean alokairuan egiten duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte: plantillan 3 langile baino gehiago ez izatea, helbide soziala eta fiskala Gasteizko udalerrian izatea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan hiru urte baino gutxiagoko antzintasuna duen irabazizko jarduera egitea, jabetzan lokalik ez izatea eta 2015eko deialdiko laguntzetan gehieneko aldirako (urtebete) laguntzaren onuradun ez izatea.

Bigarrena. Xedea

Gasteizko udalerrian ekonomia-jarduera sustatzea, ekintzaile berriei lehenengo kokapena coworking espazio edo enpresa-zentroetan badute alokairu gastuetan lagunduz.

Elkarren arteko lehia erabiliko laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko maiatzaren 27an egindako ohiko bilkuran onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 15.000,00 euroko zuzkidura du, 2016rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.489.84 partidaren kontura. Diru-laguntza lokalaren alokairu garbiaren ehuneko 50ekoa (ehuneko50) izango da, eta enpresa onuradun bakoitzeko gehienez 1.500,00 euro emango dira. Gehienez urtebeteko egonaldia lagunduko da.

2015eko deialdian diru-laguntza hauen onuradun izan zirenek urtebete baino gutxiago egin bazuten, deialdi honetan ere parte hartu ahalko dute, urtebeteko aldia bete arte falta zaizkien hilabeteen alokairurako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia argitaratuta, eskabideak aurkezteko epea 2016ko irailaren 1etik 30era bitartekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 30ean

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zerbitzu burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI